



Hondarribiko
Udala

Esp.: 2019PRES0001

KONTU-HARTZAIETZA NAGUSIA

Gaia: AURREKONTUAREN EGONKORTASUNA, GASTU ARAUA ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNERAKO HELBURUA BETETZEAREN EBALUAZIOA 2020KO EKITALDIKO AURREKONTUA ONTZAT EMATEKO

Hondarribiko Udaleko kontu-hartzaile den Laura Busca Fernández andreak, Tokiko Erakundeetan aplikagarri den Aurrekontu Egonkortasunerako Legea zehazten duen azaroaren 2ko 1463/2007 Errege Dekretuaren 16. artikuluan, Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan eta Gipuzkoako tokiko erakundeetan aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-iraunkortasunerako kontrol kontu-hartzailearen eskumena garatzen duen otsailaren 8ko 1/2013 Foru Arauan xedatuta datozena betez, ondoko **LEGEZKO ETENGABEKO FINANTZA KONTROLAREN TXOSTENA DERRIGORREZKOA ETA EZ PLANIFIKAGARRIA** igorri du.

1.APLIKATU BEHARREKO LEGERIA:

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako tokiko erakundeetan aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-iraunkortasunerako kontrol kontu-hartzailearen eskumena garatzen duena.
- 13/2014 Foru Araua, azaroaren 17koa, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoa.
- 1463/2007 Errege Dekretua, azaroaren 2koa, Aurrekontu Egonkortasunari buruzko abenduaren 12ko 18/2001 Legea garatzeko araudia onesten duena, Toki Erakundeetara aplikatzeko.
- HAP/2015/2012 Ministerioaren Agindua, urriaren 1ekoa, eta beraz moldatzen duen HAP/2082/2014 Agindua, azaroaren 7koa, AEFILO-ren (MA) aurreikusten den informazioa hedatzeko betebeharra garatzen duena.
- Europar Batasuneko 2223/96 Araua, Nazio eta Eskualdeetako Kontuen Europako Sistemari buruzkoa.



Hondarribiko
Udala

- Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko erregelak 2020ko aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko onartzen dituen jarraibidea.

2.ZUZENBIDEKO OINARRIAK:

Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa (aurrerantzean AEFILO) onartzearekin, Tokiko Erakundeek Aurrekontu Egonkortasunaren helburuak betetzeko araudi-esparrua zehaztu da eta aurretik defizit publikoaren gaia eta aipatu helburua betetzearekin lotuta zegoen araudia finkatu da.

Oraintxe aipatu legean eta 1/2013 Foru Arauan xedatuta datorrenez, hiru zerga-arau bete behar dira egonkortasun eta iraunkortasun printzipioak betetzeko: egituraren oreka edo superabita, zorraren ratioaren muga, eta gastu-araua, jarraian aztertuko duguna.

I. ERAKUNDEEN ZERRENDA

Magnitude horien kalkulua eta ebaluazioa egiteko, 1/2013 Foru Arauaren 1.2. artikuluan, Udaleko erakundearen osotasuna egiten duten erakundeak bi sektoretan bereizteko betebeharra zehazten da: a) “*Administrazio Publikoa*” sektorea eta b) “*Sozietate ez-finantzarioak*” sektorea. Ogasun Ministerioak (IGAE) sailkatzen ditu sektore bateko zein besteko erakundeak.

Hondarribiko Udalaren kasuan, erakundeak sektore honetan sailkatzen dira:

“**ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK**” SEKTOREA. Hauek dira 1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aditzera ematen diren sektore honetako erakundeak:

- Tokiko erakundea bera: Hondarribiko Udala.
- Hondarribia Lantzen SA: 2018ko maiatzaren 1ean IGAE erakundeak berak Administrazio Publikoen sektorean kokatu zuen Sozietate Anonimoa.
- Arma Plaza Fundazioa: 2018ko maiatzaren 1ean IGAE erakundeak berak Administrazio Publikoen sektorean kokatu zuen Fundazioa.



Hondarribiko
Udala

II. AURREKONTUA EGONKORTZEKO HELBURUA BETETZEA

A) Aurrekontu-egonkortasuna betetzea

Aurrekontuak egin, onartu eta exekutatzeko, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren esparruan gauzatu beharko da, Europako araudiekin bat etorriz, eta 1/2013 Foru Arauaren 2.1. artikuluan xedatutakoak betez.

Administrazio Publikoen sektorean txertatzen diren Tokiko Erakundeek kasurako, Aurrekontu-egonkortasuna honela ulertzen da: egiturazko oreka edo superabit egoera, hau da, baliabide ez-finantzario arruntenak eta kapitalenak nahikoak izan beharko dute gastu ez-finantzario arruntei eta kapitalei aurre egiteko.

B) Txostena egiteko beharra

Egonkortasunaren helburua betetzen dela jasotzen duen txostena Udalbatzan aurkezteko betebeharra dagokio Tokiko Kontu-hartzaileari, 1463/2007 Errege Dekretuaren 16. artikuluan aditzera ematen denaren arabera. Txosten hori modu independentean igorriko da eta, Aurrekontu orokorra ontzat ematerakoan, moldatzerakoan eta likidatzerakoan Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeek Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan aurreikusten diren gainerako txostenekin batera aurkeztuko da. Estatuko Kontabilitateko 1 eta 7 kapituluaren artean biltzen diren aurrekontuko gastu eta sarreraren egoerari buruzko datuetan oinarrituta egindako kalkuluak eta doiketak zehaztuko dira aipatu txostenean, Nazioetako eta Eskualdeetako Kontuen Europako Sistemaren arabera.

Ebaluazioaren emaitzaren arabera, egonkortasuna bete ez bada, plan ekonomiko-finantzarioa prestatu beharko da eta Udalbatzan onartu. Plan hori Gipuzkoako Foru Aldundira igorri beharko da jarraipena egin diezaioten.

C) Kalkulurako metodoa

1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan jasota dauden erakunde guztientzako 2020ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorren defizita nulua izango da, finantza-gaitasun edo beharraren arabera neurtuta, SEC 2010-ean jasota geratu zen definizioarekin bat etorriz.



Hondarribiko
Udala

Aurrekontu Orokorrean sartzen diren erakundeek aurrekontu eta kontabilitate publikoa gauzatzeko betebeharra dutenez, aurrekontuaren egonkortasuna honela zehazten da: Diru-sarreraren Aurrekontuko 1. kapitulutik 7.era arte ezarri diren zenbatekoen eta Gastuen Aurrekontuko 1. kapitulutik 7.era arte ezarri diren zenbatekoen arteko diferentzia.

Halaber, aurrekontu-egonkortasunari buruzko kalkulua “*Administrazio Publikoak*” sektoreko Erakunde bakoitzarentzat modu independentean egin behar da, eta gero datu guztiak uztartuko dira aurrekontu bateratua egiteko. Osoko emaitza izango da kontuan hartuko dena aurrekontua egonkortzeko helburua betetzen den ala ez zehazteko.

Horren guztiaren arabera, hauek izango dira Aurrekontu Egonkortasunerako kalkuluak:



Hondarribiko
Udala

GASTUAK GASTOS					
KAPITULO		Udala	Hond.	Arma Plaza	Guztira
CAPITULO		Ayto.	Lantzen	Fundazioa	Total
1	PERSONAL GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	7.436.460,68			7.436.460,68
2	BIENES CORRIENTES Y SERVICIOS ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	10.180.609,36	72.800,00	399.300,00	10.652.709,36
3	FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS	6.500,00			6.500,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	3.736.578,96			3.736.578,96
	Arma Plaza Fundazioari Transferentzia.				-339.400,00
5	KREDITO GLOBALA CREDITO GLOBAL	226.130,00			226.130,00
6	INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES	771.900,00	218.600,00		990.500,00
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	52.855,00			52.855,00
Guztira		22.411.034,00	291.400,00	399.300,00	22.762.334,00
Total					

SARRERAK INGRESOS					
KAPITULO		Udala	Hond.	Arma Plaza	Guztira
CAPITULO		Ayto.	Lantzen	Fundazioa	Total
1	ZUZENeko ZERGAK	7.131.000,00			7.131.000,00
	IMPUESTOS DIRECTOS				
2	ZEHARKAKO ZERGAK	591.675,00			591.675,00
	IMPUESTOS INDIRECTOS				
3	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	1.352.900,00		59.900,00	1.412.800,00
	TASAS Y OTROS INGRESOS				
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	12.904.459,00		339.400,00	13.243.859,00
	TRANSFERENCIAS CORRIENTES				
	Arma Plaza Fundazioari Transferentzia.				
5	ONDARE SARRERAK	25.000,00	291.400,00		316.400,00
	INGRESOS PATRIMONIALES				
6	INBERTSIO ERREALAK	400.000,00			400.000,00
	INVERSIONES REALES				
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	6.000,00			6.000,00
	TRANSFERENCIAS DE CAPITAL				
GUZTIRA		22.411.034,00	291.400,00	399.300,00	22.762.334,00
TOTAL					



Hondarribiko
Udala

	Udala	Hondarribia Lantzen	Arma Plaza Fundazioa
Doitutako finantziario ez-finantzario gehiegizkoa edo defizita	0,00 ez gehiegizkoa eta ez defizita.	0,00 ez gehiegizkoa eta ez defizita.	0,00 ez gehiegizkoa eta ez defizita.

Hiru erakundeek betetzen dute aurrekontua egonkortzeko helburua. Hortaz, Hondarribiko Udalerako 2020ko ekitaldiari begira aurrekontua egonkortzeko helburuaren ebaluazio bateratua egin da, eta Aurrekontu Egonkortasunaren helburua betetzen da, defizita nulua baita.

III. GASTU-ARAUUA

A) Gastu-arauaren kontzeptua

1/2013 Foru Arauaren 4. artikuluan xedatuta datorrenez, *“Gipuzkoako toki entitate bakoitzerako gastu konputagarriaren bariazioa Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan adostutakora doituko da urte bakoitzerako”*.

Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak, 2019ko urriaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen zein izango zen Instrukzioaren edukia 2020 urteko aurrekontuak egin, onartu eta egikaritzean Gipuzkoako toki eraakundeek jarraitu beharreko arauekin -2019ko urriaren 14ko GAOn argitaratua-. Zehazki, aipatutako instrukzioaren hirugarren Arauan hau dago jasota “1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan sartutako erakunde guztiek helburu hau bete beharko dute, 2019 eta 2020 ekitaldien arteko gastu zenbakarriaren aldaera ez izatea %2,8 baino handiagoa“. 3.erregelaren arabera Plan ekonomiko-finantzario bat onartzeko betebeharra zehazteko, gastuaren araua bete izana 2020ko aurrekontuaren likidazioaren bidez egiaztatuko da.

Mugatzen den gastu publikoaren hazkundea konputatzeko, “gastu konputagarri” moduan jotzen direnak xede ez-finantzarioa dutenak dira (Administrazio Publikoetako Gastuen Aurrekontuaren Egoerari buruzko 1. kapitulutik 7.era), Nazioetako eta Eskualdeetako Kontuen Europako Sistemaren arabera neurtuta. Gainera, interesak kenduko dira berauetatik, baita finantzatutako gastuei eta bestelako administrazio publikoetatik jasotako xede jakinetarako sarrerei dagozkien atalak ere.



Hondarribiko
Udala

B) Txostena egiteko beharra

Gastu Araua betetzen den ala ez Kontu-hartzaileak egindako ebaluazioari dagokionez, Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan jasotzen den informazioaren hedapenerako betebeharrak garatzen dituen urriaren 1eko HAP/2105/2012 Aginduak arautzen du. Agindu hori azaroaren 7ko HAP/2082/2014 Aginduak moldatu du, eta hala, Aurrekontua onartzeari dagokionez, Kontu-hartzailearen txostenean gastu-araua ebaluatzeko betebeharra kendu da. Soilik aurrekontua egonkortzeko helburua eta zorraren mugarena betetzen direla ebaluatu beharko da (HAP/2105/2012 Aginduaren 15.3.c) artik.), eta Gastu Arauaren azterketa, beraz, Aurrekontuaren Likidazioa egitean gauzatuko da.

3.erregelaren arabera Plan ekonomiko-finantzario bat onartzeko betebeharra zehazteko, gastuaren araua bete izana 2020ko aurrekontuaren likidazioaren bidez egiaztatuko da.

C) Gastu konputagarria eta betetze-maila

Gipuzkoako Foru Lurraldeko Tokiko Erakundeek kasuan Gastu Araua nahitaez bete beharko da, 2019ko eta 2020ko ekitaldi ekonomikoetako gastu konputagarriaren aldakuntza %2,8 edo txikiagoa den bitartean.

Arau horiek esku artean dugun aurrekontuko gastu-arauan aplikatuz gero, Hondarribiko Udalaren 2020ko ekitaldiko gastu konputagarria ezingo da aurreko ekitaldiko gastu konputagarria baino %2,8 edo gehiagokoa izan. Portzentaje hori gainditzen ez bada, gastu-araua betetzen dela joko da.

Tokiko Erakundeak gastu-araua beteko ez balu, indarrean dagoen ekitaldiaren eta hurrengo ekitaldiaren artean egoera zuzentzera eramango duen plan ekonomiko finantzarioa prestatu beharko da.

D) Kalkulurako metodoa

Gastu-arauari buruzko kalkulua Erakunde bakoitzarentzat modu independentean egin behar da, eta gero datu guztiak uztartuko dira kalkulu bateratua egiteko ("*Administrazio Publikoak*" sektoreari dagozkionak).

Gastu araua behin betiko bete den edo ez den bete maila bateratuan egiaztatzeko lana egingo da 2020 ekitaldirako aurrekontuaren likidazioan.



Hondarribiko
Udala

IV. ZORRAREN MUGA BETETZEA

1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan ageri diren erakunde guztiek bete beharreko helburua hau da: 2020ko abenduaren 31n bizirik dirauen zorrak ezin du 2020ko diru-sarrera arrunten %75 baino handiagoa izan. Horregatik, diru-sarrera arrunten arabera kalkulatzeko den zor-mailaren portzentajeak %75 edo txikiagoa izan beharko du.

Hondarribiko Udalak ez du epe luzera begirako mailegu-eragiketarik kontratatuta, eta, gainera, 2020ko ekitaldirako Aurrekontuan ez da aurreikusten mailegu-kontrataziorik egiterik. Gauzak horrela, Hondarribiko Udalaren 2020ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrak **Zor Publikoaren helburua betetzen du.**

ONDORIOAK:

2020ko ekitaldirako Hondarribiko Udalaren aurrekontu-proiektuak aurrekontu egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak betetzen dira. 3.erregelaren arabera Plan ekonomiko-finantzario bat onartzeko betebeharra zehazteko, gastuaren araua bete izana 2020ko aurrekontuaren likidazioaren bidez egiaztatuko da.

Elektronikoki sinatutako dokumentua